

KANPO-MERKATARITZAREN ESTATISTIKA (KAMEE). 2024ko uztaila

Euskal AEko ondasunen esportazioak % 1,8 hazi ziren 2024ko uztailan

2024ko lehen zazpi hilabeteetako metatuan esportazioak % 6,2 jaitsi dira, baina merkataritza-saldo positiboa mantendu egin da, 2.289 milioi eurotik gora

2024ko uztailan, Euskal AEko ondasunen esportazioek % 1,8ko urte arteko hazkundera izan zuten, EUSTATEN datuen arabera. Zenbatekoa 2.550 milioi eurokoa izan zen, aurreko urteko hilabete bereko 2.505 milioien aldean. Ondasun energetikoen esportazioak % 92,4 igo ziren eta ez-energetikoenak % 1,0 jaitsi.

Arabian esportazioek % 8,3 egin dute behera, Gipuzkoan % 9,5 hazi dira eta Bizkaian % 4,7.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. Uztaila 2024

	ESPORTAZIOAK			IMPORTAZIOAK		
	Uztaila			Uztaila		
	2023	2024	Gehikuntza (%)	2023	2024	Gehikuntza (%)
EUSKAL AE						
HILABETE, GUZTIRA	2.504.968	2.549.994	1,8	2.276.924	2.267.133	-0,4
ENERGIAZKO GAIAK	74.752	143.813	92,4	715.850	508.598	-29,0
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	2.430.216	2.406.181	-1,0	1.561.074	1.758.535	12,6
URTEKO METATUA	19.596.128	18.376.325	-6,2	16.482.707	16.086.967	-2,4
ENERGIAZKO GAIAK	864.262	1.256.086	45,3	4.134.911	4.342.829	5,0
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	18.731.866	17.120.239	-8,6	12.347.796	11.744.138	-4,9
ARABA / ÁLAVA						
HILABETE, GUZTIRA	849.063	778.752	-8,3	488.900	552.395	13,0
URTEKO METATUA	6.367.645	5.353.046	-15,9	3.727.271	3.533.777	-5,2
BIZKAIA						
HILABETE, GUZTIRA	873.380	914.689	4,7	1.407.981	1.254.314	-10,9
URTEKO METATUA	7.225.809	7.132.061	-1,3	9.606.480	9.388.265	-2,3
GIPUZKOA						
HILABETE, GUZTIRA	782.525	856.554	9,5	380.042	460.423	21,2
URTEKO METATUA	6.002.674	5.891.218	-1,9	3.148.956	3.164.925	0,5

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Data 2024ko Irailaren 20a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Euskal AEko **ondasunen inportazioak** % 0,4 jaitsi ziren eta 2.267 milioi eurora iritsi ziren. Inportazio energetikoeak % 29,0 egin zuten behera eta ez-energetikoeak % 12,6 egin zuten gora. Merkataritza-saldoa positiboa da (+282,9 milioi) eta estaldura-tasa % 112,5ekoa da.

Arabako inportazioak % 13,0 igo dira eta Gipuzkoakoak % 21,2, baina Bizkaikoak % 10,9 jaitsi dira.

Produktuen araberako analisia (muga-zergen partidak)

2024ko uztail honetan, muga-zergen bost partida esportatzaile nagusiak honako hauek izan dira: "10 pertsona baino gutxiagoko turismoak" (225 milioi, baina 2023ko hilabete berean baino 40,8 gutxiago, eta horrek % 15,4ko murrizketa dakar), "Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak" (181,5 milioi, 2023an baino 24,3 gehiago, eta % 15,5eko hazkundera), "Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak" (131,8 milioi, 47,7 milioi gutxiago eta % 26,6ko beherapena), "Petrolio-olio finduak" (72 milioi esportatu dira, aurreko urtean baino 34,1 milioi gehiago, hau da, % 90,2ko igoera) eta "Kautxuzko pneumatiko berriak" (71,7 milioi esportaziorako salmentetan, eta 37,1 milioi gutxiago, % 34,1eko atzeraldia). Partida horiek guztizkoaren % 26,7 hartzen dute uztaillean, eta guztira 681,9 milioi euroko balioa dute.

Euskal AEko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Uztaila 2024

	2023	2024	2024 (%)	2024/2023 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	2.504.968	2.549.994	100,0	1,8
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	265.810	224.993	8,8	-15,4
Automobilentzako zati eta osagarriak	157.158	181.456	7,1	15,5
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	179.452	131.794	5,2	-26,6
Petrolioaren olio finduak	37.827	71.959	2,8	90,2
Kautxuzko pneumatiko berriak	108.754	71.659	2,8	-34,1
Petrolioaren edo mineral bituminosoen olio gordinak	19.684	53.391	2,1	171,2
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	50.015	52.417	2,1	4,8
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	53.263	48.709	1,9	-8,6
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	40.446	46.635	1,8	15,3
Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiariautoak, ekipaje-furgoiak, posta-autoak eta bestelakoak	671	37.122	1,5	5.433,0
Turborreaktoreak, turbopropulsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	22.025	36.690	1,4	66,6
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	11.389	35.143	1,4	208,6
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	25.303	34.886	1,4	37,9
Burdina edo altzairuzko gainerako enbaturak	32.418	31.947	1,3	-1,5
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketatarako euskarriak	18.102	28.119	1,1	55,3
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	23.597	27.905	1,1	18,3
Aduana-tarifan berariaz jasota ez dauden merkantziak	37.430	27.316	1,1	-27,0
Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak, etab.	20.491	24.493	1,0	19,5
Ontziak eta paketatzeko aparatuak garbitzeko, betetzeko, iteko, etiketatzeko makinak	14.064	23.443	0,9	66,7
Transformadore elektrikoak, bihurgailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina	15.614	22.491	0,9	44,0
Xafien bidez eraikuntzak, barrak, profilak, tutuak eta fundicion-etako, burdinako edo altzairuko antzeko	19.182	22.417	0,9	16,9
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	23.017	22.321	0,9	-3,0
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	32.212	21.024	0,8	-34,7
Ardoa, mahats freskoarena	17.379	20.893	0,8	20,2
Hariak, isolatutako eroale elektrikoak kableak eta zuntz optikoko kableak	13.813	20.451	0,8	48,1

(p)Behinbehineko datuak

Data 2024ko Irailaren 20a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Araban, muga-zergen bi partida nagusiek ("10 pertsona baino gutxiagoko turismoak" (%-8,6) eta "Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak" (%-26,5) atzerapen nabarmenak izan dituzte aurreko urtearen aldean, 19,9 milioi lehenengoaren aldean eta 47,6 bigarrenaren aldean. Gehien hazi den partida (% 54,9) "Elektrizitatea kontrolatzeko edo banatzeko koadroak, panelak eta euskarriak" izan da.

Arabako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Uztaila 2024

	2023	2024	2024 (%)	2024/2023 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	849.063	778.752	100,0	-8,3
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	231.986	212.124	27,2	-8,6
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	179.265	131.686	16,9	-26,5
Automobilentzako zati eta osagarriak	44.098	50.060	6,4	13,5
Kautxuzko pneumatiko berriak	41.892	45.816	5,9	9,4
Hodiak eta profilak hutsak; soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	45.199	42.394	5,4	-6,2
Ardoa, mahats freskoarena	15.693	18.995	2,4	21,0
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	13.351	13.427	1,7	0,6
Motorra duten edo ez duten aireontzien zatiak, tripulatuak izan edo ez, eta satellite eta ibilgailu espazialen zatiak	8.054	12.217	1,6	51,7
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketarako euskarriak	7.016	10.869	1,4	54,9
Kobrezko zakarrak eta hondakinak	7.020	6.803	0,9	-3,1

(p)Behinbehineko datuak

Data 2024ko Irailaren 20a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Bizkaian "Petrolio olio gordinak edo mineral bituminosoarenak" nabarmendu behar dira, aurreko urteko aldi berean baino 33,7 milioi gehiago (% 171,2ko hazkundera) eta "Petrolio olio finduenak", 35,0 milioi gehiago eta % 101,5eko hazkundera. Bestalde, "Kautxuzko pneumatiko berrien" esportazioak (-%61,9 eta 41 milioi gutxiago) eta "Aduana-arantzelan berariaz jasota ez dauden merkantzien" esportazioak (-%30,2 eta 10,8 milioi gutxiago) nabarmen egin dute atzera partida garrantzitsuenen artean.

Bizkaiko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Uztaila 2024

	2023	2024	2024 (%)	2024/2023 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	####	914.689	100,0	4,7
Petrolioaren olio finduak	34.529	69.560	7,6	101,5
Petrolioaren edo mineral bituminosoen olio gordinak	19.684	53.391	5,8	171,2
Automobilentzako zati eta osagarriak	49.013	53.132	5,8	8,4
Turborreaktoreak, turbopropulsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	21.903	36.446	4,0	66,4
Kautxuzko pneumatiko berriak	66.286	25.277	2,8	-61,9
Aduana-tarifan berariaz jasota ez dauden merkantziak	35.833	25.018	2,7	-30,2
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	16.395	20.335	2,2	24,0
Biodiesela eta bere nahasketak, petrolio edo mineral bituminoso oilorik gabe edo pisuan % 70etik beherako edukiarekin	12.701	18.439	2,0	45,2
Xaffen bidez eraikuntzak, barrak, profilak, tutuak eta fundicion-etako, burdinako edo altzairuko antzeko	15.271	17.928	2,0	17,4
Transformadore elektrikoak, bihurtgailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina	12.774	17.874	2,0	39,9

(p)Behinbehineko datuak

Data 2024ko Irailaren 20a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Gipuzkoan, aipagarriak dira "Bidaiarien autoak, bagajeak, posta, etab. trenbideetarako eta antzekoetarako" eta "Ilogailuak, eskailera mekanikoak, garraiatzaileak, etab.", 37,1 eta 29,9 milioi esportatu baitituzte, hurrenez hurren. Aitzitik, "Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profilen" esportazioak murriztu egin dira (-%8,7 eta 4,4 milioi gutxiago).

Gipuzkoako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Uztaila 2024

	2023	2024	2024 (%)	2024/2023 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	782.525	856.554	100,0	9,5
Automobilentzako zati eta osagarriak	64.047	78.265	9,1	22,2
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	50.778	46.352	5,4	-8,7
Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiari-autoak, ekipaje-furgoiak, posta-autoak eta bestelakoak	224	37.077	4,3	16.426,3
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	28.354	33.475	3,9	18,1
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	22.487	31.058	3,6	38,1
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	10.215	29.929	3,5	193,0
Ontziak eta paketatzeko aparatuak garbitzeko, betetzeko, itzeko, etiketatzeko makinak	13.223	22.520	2,6	70,3
Burdina edo altzairuzko gainerako enbriaturak	18.247	19.686	2,3	7,9
Hariak, isolatutako eroale elektrikoak kableak eta zuntz optikoko kableak	11.580	18.718	2,2	61,6
Metal arruntzeko giltzarriak, sarriak, morroiloak eta giltzak	16.736	16.831	2,0	0,6

(p)Behinbehineko datuak

Data 2024ko Irailaren 20a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Inportazioak aztertuta, ikusten da garrantzitsuenak, "*Petrolio edo mineral bituminosoko olio gordinak*" (guztizkoaren % 18), % 8,9 jaitsi direla, 408,9 milioi inportatuta. Garrantzian horren atzetik doan partida ere nabarmen jaitsi da, "*Petrolio-olio finduak*" (% 23,6 jaitsi da, 28,2 milioi gutxiagorekin). Aitzitik, tradizioz gure esportazioen parte ziren hiru produktu nabarmen hazi dira: "*10 pertsona baino gutxiagoko turismoak*" (33,5 milioi Arabatik ia osorik erosita), "*Xaflaz, barraz, profilez, hodiz eta antzeko burdinurtuz, burdinaz edo altzairuz egindako eraikuntzak*" (30,6 milioi inportatuta) eta "*Berotan ijeztutako produktu lauak, aleatu gabeko eta txapatu edo estali gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak > 599 mm*" (72,4 milioi).

Jatorri-helmuga herrialdeak, 2024ko uztaila

Hilabete honetan, honako hauek dira ranking esportatzailearen lehen postuak:

- **Frantzia:** 394,1 milioi euroko ondasunak esportatu dira herrialde horretara, % 217,9ko estaldura-tasarekin.
- **Alemania:** 365,5 milioiko balioa duten produktuak jasotzen ditu gure erkidegotik, % 97,5eko estaldura-tasarekin.
- **Erresuma Batua:** 171,9 milioi euroko balioarekin esportatzen da, % 161,1eko estaldura-tasarekin.
- **Estatu Batuak:** gure esportazioen 157,1 milioi herrialde horretara bideratu dira, % 130,9ko estaldura-tasarekin.
- **Italia:** herrialde horretara bideratutako salmentak 134,4 milioira iritsi dira, % 141,1eko estaldura-tasarekin.

Herrialde horiek esportazio guztien % 48 hartzen dute, eta horietako hiru 27. EBkoak dira, eta erakunde horrek esportazioen % 57,9 biltzen ditu.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak 2.289 milioi euroko saldo positiboa izan du 2024ko urtariletik uztailera arteko metaturako

Lehenengo zazpi hilabeteetan, eta Euskal AEko esportazioen kasuan, % 6,2ko jaitsiera erregistratu da aurreko urteko aldi beraren aldean, hau da, 1.219,8 milioi euro gutxiago. Esportazioen zenbatekoa 18.376,3 milioikoa izan da aldi horretan.

Bizkaiko esportazioak Euskal AEko handienak dira (7.132,1 milioi), Gipuzkoan 5.891,2 milioi eta Araban 5.353,0 milioi.

Produktu-mota kontuan hartuta, "*Produktu ez-energetikoak*" dira ugarienak, 17.120,2 milioi euroekin.

Xehetasunetara jaitsita, muga-zergen partida nagusiak (1.466 milioi), "*10 pertsona baino gutxiagoko turismoak*" izenekoak, % 22,7ko jaitsiera izan du, eta aldi horretako muga-zergen hamar partida garrantzitsuenen artean nagusi da, "*Burdinazko edo altzairuzko gainerako manufakturak*" atalaren % 3,3tik "*Soldadurarik gabeko hodi eta profil hutsak, burdina edo altzairuzkoak*" atalaren % 35,3ra bitarteko atzerapenekin. Atzerakadarik handienak, azken horretan ez ezik, "*Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobiletan*" (-%31,6 eta 425,9 milioi gutxiago) eta "*Kautxuzko pneumatiko berrietan*" (-%26,0, 226,8 milioi gutxiago) gertatu dira.

Aipatutako multzoaren barruan, esportazioen hazkunde handiena "petrolio-olio finduetan" gertatu da (% 32,1, 952 milioi esportatuta eta 231 milioi gehiago aurreko urteko aldi berean baino).

Euskal AEko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera, urteko metatua (p). Uztaila 2024

	Kodea	Izendapena	Mila euro
		ESPORTAZIOAK GUZTIRA	18.376.325
1	8703	10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	1.466.011
2	8708	Automobilentzako zati eta osagarriak	1.376.810
3	2710	Petrolioaren olio finduak	952.009
4	8704	Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	923.228
5	4011	Kautxuzko pneumatiko berriak	645.954
6	7216	Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	371.761
7	7304	Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	311.836
8	8481	Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	309.497
9	7326	Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturak	246.430
10	8411	Turborreaktoreak, turbopropulsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	237.804
11	8603	Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetarako	230.728
12	8504	Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	222.555
13	9990	Aduana-tarifa berariaz jasota ez dauden merkantziak	214.288
14	2709	Petrolioaren edo mineral bituminosoen olio gordinak	198.199
15	7606	0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	190.302
16	8428	Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	187.031
17	7228	Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zultzeko barra hutsak	174.308
18	7308	Xafien bidez eraikitutako, barrak, profilak, tutuak eta fundicio-etak, burdinako edo altzairuko antzeko	172.514
19	8537	Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketarako euskarriak	171.673
20	8483	Transmisio-ardatzak, kojineak, engranajeak, enbrageak, etab.	169.390
21	8607	Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	166.624
22	7222	Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	161.519
23	7325	Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste manufaktura moldeatutako batzuk	144.789
24	7306	Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	144.455
25	8702	Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak	143.166

(p)Behinbehineko datuak

Data 2024ko Irailaren 20a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika


2024ko lehen zazpi hilabete hauetako rankingaren arabera, Frantzia da herrialde hartzaile nagusia, esportatutako guztizkoaren % 16,3arekin (3.001,2 milioi). Frantziaren atzetik daude Alemania (% 14,5 eta 2.659,3 milioi) eta Erresuma Batua (% 7,3 eta 1.332,8 milioi). Horrela, hiru herrialdeen artean, euskal esportazioen ia % 40 biltzen dira (% 38,1).

Euskal AE osorako inportazioen metatua 16.087 milioi euro ingurukoa da. Zifra horren urte arteko alderaketa eginez gero, ikusten da 395,7 milioi txikiagoa dela aurreko urteko aldi berean erregistratutakoa baino. Jaitsiera hori, hein handi batean, Arabako lurraldean, 3.533,8 milioiko inportazio metatuekin, aldi horretan % 5,2ko beherapena izan delako gertatu da, hau da, 193,5 milioi gutxiago 2023ko aldi berean baino. Bizkaiko inportazioek ere atzera egin dute, 218,2 milioi gutxiago (-%2,3), 9.388,3 milioi guztira. Gipuzkoan % 0,5eko hazkunde txikia izan da (16 milioi gehiago), guztira 3.164,9 milioirekin. "Produktu ez-energetikoen" inportazioa % 4,9 jaitsi da, baina "Produktu energetikoen" % 5,0 igo da.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak, 2024ko urtariletik uztailera, 2.289,4 milioi euroko saldo positiboa izan du, eta estaldura-tasa % 114,2koa.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera

Milioi Euro



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62